

noaue

**Udarregi ikastolako
langileak, erraustegiarekin
kezkaturata**

**Jaietako txupinazoa
botako duen hautagaiaren
bila**

**Ostiral honetan
'Errementari' filma Sutegin**



Errauste-planta itxura hartzen hasi da

Elektrizitate-
elektronika
Fabrikazio
mekanikoa
Administrazioa
Energia eta ura
Produktzio
zerbitzu
eta mantentze

Usurbilgo Lanbide Eskola

ATE IREKIAK!

www.lhusurbil.eus

Goi eta Erdi Mailako
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrituntza
PROIEKTUAK

...

MAIATZAK 12 eta 19 11:00tan

MAIATZAK 16 18:00tan

MAIATZA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**
CIFP USURBIL LHI



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



Usurbilen, zure auto-tailerra



Atallu

AUTOAK

>>>>

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua





Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



NOAOA

BIDAIK

943 373 613

CADIZ EZAGUTUZ

MAIATZAN 8 EGUN ETA URRIAN 10 EGUN

WWW.NOAOA.EUS

Albisteak iruditan

Istripua berriz ere Luzuriaga parean

Berriz ere auto istripua jazo zen apirilaren 26an N-634 errepidean Luzuriaga parean. Antza bi ibilgailuk elkar jo zuten. Trafikoan eragin nabarmena izan zuen istripuak, Aroa Bengoetxea herritarrek sare sozialen bidez helarazitako ondoko argazkian ikus daitekeenez.

Ez da halako istripu bat gertatzen den lehen aldia. Martxoan hasieran ere puntu berean beste istripu bat jazo zen bi auto eta kamioi baten artean. Lau gazte usurbildar zauritu ziren. Egun berean, Udalak ohartarazi zuenez, behin eta berriz eskatu izan dio “Gipuzkoako Diputazioari N-634 errepidearen izaera aldatzeko eta izaera urbanoa emateko, trafiko bolumena murriztu ahal izateko”. Trenbide eta errepideko pasabide arriskutsuen harira “Puntu beltzik ez!” herri plataformak agerraldi jendetsua egin zuen martxoaren 17an frontoian, pasabideotako segurtasun falta salatu eta neurriak hartzea eskatzeko.



Martxoan hasieran ere puntu berean beste istripu bat jazo zen bi auto eta kamioi baten artean. Lau gazte usurbildar zauritu ziren.

Bilera irekia maiatzaren 8an

Agerraldi hura, lanketa prozesu luzeago baten abiapuntua izango zela iragarri zuten. Herri plataformako kideek NOAA!ri berri eman diotenez, “Udalean ordezkartza duten alderdi politikoeekin bilerak

egin ditugu”. Bilera hauek emandakoren berri herritarrei jakinarazi eta aurrera begirako lan-ildoak finkatzeko bilera irekia deitu dute maiatzaren 8rako 19:00etan Potxoenean. “Etorri eta parte hartu dinamika honetan!”, luzatu dute gonbita.

Laburrean

Maiatzaren 7an odol ematea

Maiatzaren 7rako deitu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak, odola emateko hurrengo hitzordua. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaiak antolatzen segitzeko hurrengo bilera irekia maiatzaren 8rako finkatu dute, 18:00etan Potxoenean.

1978an jaiotakoen bazkaria

Bazkaria ekainaren 16an egingo dute Patri jatetxean. Otordurako izena, maiatzaren 28a baino lehen eman, whatsapp mezuzi bidez, zenbaki honetan: 652 735 638.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Imanol Ubeda

Ahantzuraren zuloan

A spaldian, irratsaio bat egiten nuen Herri Irratian. Ez zen beste munduko programa bat. Euskal kantagintza hobeto ezagutzeko aukera eskaini zidan behintzat. Abestiak 'dedikatzeko' tarte bat zegoen eta entzuleek eskatzen zutena zintzo-demonio betetzen saiatzen nintzen. Batez ere jende helduak deitzen zuen eta, normala denez, euren garaiko kantak eskatzen zizkidaten. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Amaia Zubiria... Eta baita Estitxuren abestiak ere.

Mende honen hasiera zen eta kanta horietako gehienak CDan zeuden. Baina Estitxurenak adibidez, binilotik jarri behar izaten genituen. Horrela deskubritu nituen bere abesti asko. Guazten ikastolara (1972) kanta txundigarria

egiten zitzaidan. Estitxuk berak idatzia, charleston estiloko kanta zoragarria da. Erritmo bizikoa, orkestrazio ederrarekin ondua.

Irratiko lana amaitu zen. Beste kontu batzuetan murgildu nintzen gero. Baina egiaz, Estitxuren inguruan ezer gutxi nekien. Laboa, Lertxundi, Iriondo edota Leteren ingurukoak (elkarriketak, artikulak, bideoak, kantak) eskatu gabe izan ditugu begi bistan. Estitxurekin ordea, halako hutsune bat egon da beti. Zer dela eta? 1993an zendu zen Beskoitzen jaiotako kantaria. Artean 20 urte genituen eta, egia esateko, ez geunden gure zaharrek kantatzen zutenaz kezkatzeko. Hori ere hala da. Adin kontuak, badakizue. Baina gerora ere, ez zaio aparteko aipamenik egin. Euskal pulpitu mediatikoan ez du aparteko presentziarik izan.

Horretan, euskaldunak, ez gara oso diferenteak. Batzuk jainkotu (Ez Dok Amairu edota Rock Radical Vasco etiketadun artistak) eta besteak ahanzturaren zulora kondenatu ohi ditugu.

2017ko martxoan, ETB1eko albistegiak eman zuen notizia: Estitxuren izenarekin bataiatu dute Baionako kale bat. Hura ikustean, ikastolen kanta etorri zitzaidan berriro gogora. Eta Beskoitzen jaio zen kantariaz ezer gutxi nekiela jabetu nintzen berriro ere.

Pasa den igandean, "Estitxu" dokumentala eman zuten ETB1n. Fran Dolosor kazetariak berriki plazaratu duen ikusentzunezkoari esker, kantariaren atzean dagoen pertsona deskubritzeko aukera dugu orain. Erbestea, zentsura, politika, argiak eta itzalak, arrakasta, gainbehera, gaixoaia... Eta agu-

rra. Minbiziak jota, hilurren, oholtza gainean agurtu nahi izan zituen bere etxeokak eta bere lagunak. Hori da dokumentalaren pasarte hunkigarriena akaso.

Egunotan, Estitxu burutik kendu ezinik nabil. Berari aspaldian eginiko elkarriketa bat topatu berri dut sarean. Pasarte hau nabarmendu nahi nuke:

Galdera: Zer egiten duzu denbora librean?

Estitxu: Musika entzuten dut. Abestiak. Eta batzuetan herri txikietara joaten naiz, kanta ahaztuak abesten ditzuten zaharrak entzuter... Eurekin batera hilko diren kanta zaharrak.

Fran Dolosorren dokumentalak Estitxuren oroimena bizirik mantentzeko balioko al du?

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

2019an ere, uztailaren 2a jai eguna izango da Usurbilen

Salbuespen moduan, iaz ekainaren 30a izendatu zuen Udalak Usurbilgo jai egun gisa, urterokoa, uztailaren 2a, igandez egokitu baitzen. Aurten, astelehena izango dugu aipatu uztailaren bigarren eguna,

eta horixe, gorriz seinalatu beharko dugu, jai eguna izango baita. 2019. urtean ere bai. Usurbilgo Udaleko udalbatzak apirilaren 24an eginiko osoko ohiko bilkuran, hurrengo urtean ere uztailaren 2a (urtebete

barru, asteartez egokituko da) Usurbilgo jai eguna izendatzea erabaki zuen aho batez.

Gipuzkoan, uztailaren 31n

Herri mailako jai egun bat izendatzeko eskaera, urtero

moduan Eusko Jaurlaritzatik jaso du Usurbilgo Udalak. Bai Usurbilgoak, baita EAE-ko gainerako udalek ere. Usurbilgo jai eguna uztailaren 2a izango da 2019an, Gipuzkoakoa uztailaren 31.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Jaietako txupinazorako hautagaiak proposatzeko deia

Azken urteon ildo beretik, jaiak abiaraziko dituen suziria, txupinazoa nork jaurtiko duen usurbildarrek hautatuko dute aurtengoan ere. Proposamenak egitera animatzen dute Jai Batzordetik. Zuen ekarpenak helarazteko bi bide dituzue maiatzaren 18ra arte; emailaz, kultura@usurbil.eus helbidera idatzita, edo Potxoenean, Sutegi udal liburutegian, Oiar-do Kiroldengan edo Usurbilgo Udalean jarriak dauden kaxetan utzi ditzakezue.

Egitarau diseinu lehiaketa abian

Jaien berri ematen digun egitaraua lehiaketa bidez hautatu ohi du Jai Batzordeak. Aurtengoan ere hala egingo dute. Martxan da jada, Usurbilgo jaietako egitarau diseinu lehiaketa. Parte hartzeko bete beharreko baldintzak ohikoak dira, gogora ditzagun:

■ Lehiaketa publiko eta irekia da.

■ Lanaren ezaugarriak: originala, aurrez argitaratu gabea izan beharko du. Nahi adina lan aurkez daitezke. Euskaraz, neurri librean.

■ Lanak aurkezteko modua: euskarri digitalean eta papelean (CD edo prentze batean, PDF formatuan). Lan bakoi-tza bi gutunazalean aurkeztu: A gutunean egilearen datuak adierazi beharko dira. B gutu-



Jai Batzordea maiatzaren 8an batuko da, arratsaldeko 18:00etan, Potxoenean.

EPEA: MAIATZAK 18

“Edonork aurkez ditzake hautagaiak. Sutegiko liburutegian, Kiroldengan, Potxoenean eta Udaletxean kaxa bana duzue eskura”

nean, diseinu lana. Bi gutunon azaletan, egilearen izengoitia, A edo B kartazala den eta Santixabel egitarauaren lehiaketa adierazi beharko da.

■ Parte hartzailea: norbanako edo taldeek aurkeztu daitezke. Taldeen kasuan, talde kide bat izendatuko da lanaren ardura-

dun.

■ Egitaraurako testua: Potxoenean edo kultura@usurbil.eus helbide bidez jaso beharko da. Testu horretan oinarrituta sortu behar da diseinu lana, Usurbilgo Udalaren logoarekin.

■ Epaimahaia: Jai Batzordeko eta diseinu arloan ezagutzen duten bina kideek eta kultura zinegotziak osatuko dute.

■ Lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da.

■ Aurkezteko epea eta lekua: maiatzaren 18a baino lehen, udal erregistroan edo postaz helbide honetara bidali: Usurbilgo Udala, Kultura Saila, Joxe

Martin Sagardia z.g. 20170 Usurbil

■ Saria: 500 euro (txapeldunak, gaztelaniazko bertsio laburtua jasotzen duen tamaina txikiagoko eskuorria maketatu beharko du).

■ Argibide gehiagorako: 943 371 999 / kultura@usurbil.eus

Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaiak antolatzen segitzeko hurrengo bilera irekia maiatzaren 8rako finkatu dute, 18:00etan Potxoenean.



Ainhua Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin absolbiltzea eskatu du udalbatzak

U surbilgo Udaleko udalbatzak Ainhua Intxaurrendietaren eta Iñaki Errazkinen absoluzioa galdegiten duen mozioa onartu zuen apirilaren 24an egin zuten osoko ohiko bilkuran. PSE eta EAJ-ren ordezkariak aurka bozkatu zuten.

Zubietako erraustegiko lanak akordio bidez geratzeagatik, herritarrei aurrez emandako hitza betetzeagatik hain zuzen, 46 milioi eurorainoko zigorrak jar diezazkiete bi auzipetuei. “Kopuru horren barruan kalkulatzen dute enpresa-erakitzaileei ordaindu zitzaizkien kalte-ordainak, eta, EAJk eta PSEk bankuekin sinatutako swap-en ondorioz, orain arte ordaindu den dirutza” dio mozioak.

Dirutza horri beren poltsikoetatik egitera zigortu ditzakete Intxaurrendieta eta Errazkin, “jakinda dirutza hori ordaintzea ezinezkoa dela. Eskatutako zigorra ezartzen badiete, bizi osorako zigorra ezarriko diete”. Politikoko egiteko modu bat jarri da auzibidean mozioaren esanetan, “egungo eredu neoliberalak zalantzan jarri eta beste eredu posible bat dela erakutsi zutelako” epaitu dituzte Intxaurrendieta eta Errazkin.

Hiru eskaerok biltzen ditu aurreko astean onartutako mozioak: 1-Errazkini eta Intxaurrendietari elkartasuna eta babesa



Mozioak EHBilduren babesa jaso zuen eta EAJ zein PSEren kontrako botoa.

ZILEGITASUNA

“Herritarrei emandako hitza betetzeko hartutako erabakien zilegitasuna aldarrikatzen du mozioak”

adierazi.

2-Gaur egun Zubietan erakitzen ari den errauste-planta bertan behera utzi eta hondakinak kudeatzeko beste modu iraunkorragoen alde egin.

3-Herritarrei emandako hitza betetzeko hartutako erabakien zilegitasuna aldarrikatu.

EAJ: “Legea urratu zen”

Gaiak zeresana eman zien udal taldeei. Mozioa onartu aurretik, EAJ-k aurka bozkatu zuela iragartzeko adierazpen bat irakurri zuen. Bertan, gai honetan bi plano bereizteko beharra azpimarratzen zuten jeltzaleek; plano legala eta zilegitasun demokratikoa. 2013an Zubietako errauste-

giko lanak eteteko hartutako erabakiarekin, “legea urratu zen”, zioen Josune Urkolak. Eta apirilaren 12an Madrilgo Kontu Auzitegian epaitu zituzten Ainhua Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin bere garaian legea urratzen ari zirela ohartaraziak izan zirela. Halere auzi honetan, epaileak izango zuela azken hitza gaineratu zuen.

Zilegitasun demokratikoiari dagokionez, EAJ-tik zioten, Bildu 2011n Aldundia gobernatzerantz heldu zenean bere proiektua inposatu zuela, nahiz Zubietako erraustegia eraikitzeke egitasmoak Gipuzkoako Batzar Nagusien gehiengoa izan. Argi zioten, gauza bat hauteskundeak irabaztea da, “beste gehiengoa izatea”.

Bilduko ordezkariak ohartaraziak izan zirela dio PSE-k

Ildo beretik mintzatu zen PSE-ren ordezkaria ere. 2013an erraustegiko (“balorizazio

planta” deitzen zion ordezkari politiko sozialistak) lanak geratuta, Batzar Nagusietan eginiko ohartarazpenak ez zituztela errespetatu zioen Fermin Oruek, Madrilan epaitu berri dituzten garai hartako GHK-ko lehendakari eta foru ingurumen diputatu zirenek. Indarrean zen araudia ez errespetatzearekin batera, erreusa tratatzeko azpiegitura gabe geratu zela ondorioz, Gipuzkoa. Alternatibarik gabe, eta banketxeekin hitzartuak zeuden SWAP-ak ordaindu beharrean aurkitu zela herrialde hau.

Eta testuinguru horretan, orduko GHK-k, Foru Aldundiak eta enpresa eraikitzaileek erdietsitako akordioa balio gabe kotzat jo eta errekurritu zutela EAJ-k eta PSE-k.

Kontratu etetea

GHK-ren eskumena zen

Bere garaian Zubietako erraustegia eraikitzeke kontratu hori GHK-k sinatu eta gauzatzea erabaki bezala, kontratu bera “atzeratzea ere bere (GHK-ren) eskumena da” argitu zuen alkateak, 2013an Bilduko ordezkariak Zubietako erraustegia geratzeko hartutako erabakiari babesa agertuz.

Are gehiago, Alaitz Aizpurua zinegotziak gaineratzen zuenez, aipatu planak hondakinak kudeatzeko hierarkia zehazten du. Lehenik hondakinak murriztu, bererabili eta birziklatu behar direla dio, eta hori guztia egin da, bukaeran geratzen den zati birziklaezina, erreusa tratatu behar dela. Zubietako erraustegia planteatu zutenek, gauzak atzetik aurrera egin zituela nabarmendu zuen.

“Noiz izenpetu ziren SWAP-ak?”

2013an Zubietako erraustegiko lanen eteteak izandako eragin ekonomikoa bere poltsikotik ordaintzea galdegiten zaie Intxaurrendietari eta Errazkini. Tartean, SWAP direlako finantza produktuek eragiten segitzen duten

gastuak. 40 milioi eurotik gora guztira. SWAP hauen kontratazioarekin jazotakoa oroitarazi zuen alkateak. “Noiz izenpetu ziren SWAP-ak? Bilduk hauteskundeetan gehiengoa lortu ostean”. Maiatzan ospatu ziren 2011ko

udal eta foru hauteskundeak. SWAP hauek ekainean hitzartu zituzten aurreko (2007-11) legegintzaldiko agintariak. “Hori bai da zilegitasun demokratiko eza, iruzurra eta tranpa egitea gipuzkoarrei”, zioen Arregik.

Udarregi Ikastolan ere erraustegiaren eraginaz kezkatua

Landaberri Ikastolari elkartasuna adierazi eta Lasarte-Oriako ikastetxetik, hurbil, 500 metrora eraikitzen ari diren erraustegiarekiko agertu duten kezcarekin bat egin dute Udarregi Ikastolako irakasleek ere. Ondoko idatzia helarazi dute NOAUA!ra:

Landaberri ikastolako lankideei elkartasuna

Noauan 2018ko apirilaren 13an Landaberriko irakasle kezkatuek Gema Gonzalez de Txabarri esandakoaren harira, Udarregiko irakasleok ondorengoa adierazi nahi dugu:

Landaberriko irakasleen antzera, gu ere kezkatuta gaude

Kezkatuta, 2 kilometro eskasera eraiki nahi duten errauskailuak langileon eta ikasleonek osasunean sor ditzakeen kalteak larriak direlako ikerketa zientifikoen arabera.

Kezkatuta, Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariak Landaberriko irakasleen idatzari emandako erantzunagatik eta hitz eginez kezka horri erantzun beharrean, presio bidez tentsio gehiago sortarazi duelako.

Kezkatuta, ikasleek Udarregi ikastolan egunerokotasunean lantzen ditugun balio eta eredu hezitzaileak (horien artean, liskarrak hitzaren bidez konpontzea, modu demokratiko eta parte-hartzailean adostasuntara iristea, gainerako kideei norberaren erabakiak ez inposatzea) 'helduen munduan' ez direla bermatzen ikusiko dutelako.

Kezkatuta, adostasun zabalak behar dituzten hainbat gaietan (genero-indarkeria kasu) erakundeek herritarrekin elkarlanean jarduten badute



Udarregi Ikastolako irakasleek euren elkartasuna adierazi diete Lasarte-Oriako Landaberri ikastolako kideei.

IRAKASLEEN IDATZIA

"Kezkatuta gaude bi kilometro eskasera eraiki nahi duten errauskailuak langileon eta ikasleonek osasunean sor ditzakeen kalteak larriak direlako ikerketa zientifikoen arabera"

ere, guztioi eragiten digun eta guztion artean erabaki beharreko gai honetan desberdin jokatu dutelako.

Herritarrei eskaera

Aurrez aipatutako kezka ho-

riek zuk ere buruan badarabil-tzazu, har ezazu hitza. Hondakinen kudeaketaren gaiari nola aurre egingo diogun eztabai-datu eta adostu behar dugu. Guk, irakasleok, Udarregin ikasleekin egin ohi dugun moduan, hitz egin dezagun hain liskartsua baina garrantzitsua den gai honen inguruan.

Maiatzaren 5ean elkartasun eguna antolatu du GuraSOsek Landaberri ikastolan. Hitzartu egitasmoaren harira, goizeko 10:15ean hasita hondakinen kudeaketaren inguruan jardungo dugu. Eguerdian paela jana egingo da (3 euro pertsonako), Usurbilgo eta

Lasarte-Oriako kantu taldeekin batera abestuz. Azkenik, 17:00an elkartasun-festarekin amaituko da eguna, musikaz gozatu eta dantza eginez. Egun osoan zehar haurrentzako jolasak eta jarduerak antolatu dira.

Etorkizuneko hiritarren hezkuntza ez da bakarrik irakasleonek ardura. Guztiok dugu zer esana gai honetan. Eman ezazu izena (komunikazioa@gurasos.org). Zuen babesa behar dugu. Har dezagun hitza!

Udarregi ikastolako irakasle kezkatuen izenean



Haur Eskolako hezitzaileek ere bat egin dute larunbat honetan Landaberri ikastolan egingo den jardunaldiarekin.

Erraustegia, begi bistan

Herritar batek baino gehiagok etxeko leihoa ireki edo balkoira ir-tetea aski du, Zubietan gainean eraikitzen ari diren erraustegia ikusteko. Jada begi bistakoa da planta bera herriko txoko askotatik. Azken hilabeteotan abia-da bizia hartu dute eraikitze lanek, ondoko irudian ikus dezakezuenek. Askoz mantsoago doaz, handik oso gertuko lur eremuan kokatu asmo duten espetxe edota industriaguneko eraikitze lanak.



Azken hilabeteotan abiada bizia hartu dute eraikitze lanek.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziotik berri eman dutenez, bigarren faseko lanak FCC-ri esleitzea erabaki dute, “talde horren eskaintzak lortu du puntuaziorik onena, bai alderdi teknikoan, bai ekonomikoan”. 32,2 milioi euro xahutuko ditu biometanizazio

planta batean eta erraustegiak sortaraziko dituen “zepak birziklatzeko beste planta batean”. Azpiegitura hauei, eraikitzen ari diren erraustegia eta tratamendu mekaniko biologikorako planta erantsi behar. Urtebete barru ospatuko diren udal eta foru hauteskundeeta-

rako amaituta nahi ditu azpiegiturok Foru Aldundiak. “Ingurumen Gunearen bi faseak abiarazita, Gipuzkoak ebatzita izango du hondakinen arazoa legealdi amaieran, eta herritarrekin hartutako konpromisoa beteta egongo da”, iragarri dute.

Parte hartze eguna Landaberrin

Herritarrok hondakinen kudeaketaren gaian ere hitza hartzeko ordua heldu da. GuraSOSe abian duen Hitzartu prozesuaren baitan, herritarrontzako parte hartze jardunaldi eguna antolatu dute larunbaterako, maiatzak 5, Lasarte-Oriako Landaberri Ikastolan. Gune ireki bat izango da, eta bertan, modu lasai, alai eta aske batean egin ahalko ditu norberak bere ekarpenak. Jai kutsua ere izango du egunak.

■ **Jardunaldia:** “Hondakinen kudaketan, ikuspegi anitzetik, adostasuna bilatu nahian: osasuna, ingurumena, ekonomia eta demokrazia”.

■ **Galderak:** “Borondate kontua da, garaiz al gaude? Nola lortu daiteke adostasuna? Nola egin dezakegu informatzeko, eztabaidatzeko eta parte hartzeko eskubideak bermatu daitezen?”



Lasarte-Oriako Landaberri ikastolan egingo da jardunaldia. Argazkia: Hitzartu.

GURASOS

“Gune ireki bat izango da, eta bertan, modu lasai, alai eta aske batean egin ahalko ditu norberak bere ekarpenak”

Ba al da arazoa konpontzeko egokiagoa den biderik?”

Maiatzak 5, larunbata

Lasarte-Oriako Landaberri ikastolan:

■ 10:15 Harrera.

■ 10:30 Irekiera eta agenda osatu.

■ 11:45-14:00 Gune irekiko solasaldiak, adin guztietarako.

■ 14.00-15.30 Bazkaria. Menua: paella, fruta eta edaria, 3 euro. Oharra: ez dira erabiliko ez plastikozko ezta paperezko platerak, ezta plastikozko botilak ere.

■ 15.30-16:30 Gune irekiko solasaldiak, adin guztietarako.

■ 16:30-17:00 Itxiera.

■ 17:00 Jaia.

■ Haurren parte hartzea eta zaintza: etorkizunari buruz iritzia emateko aukera izango dute haurrek. Jarduera bereziak antolatuko dira haien zehar, begiraleekin.

■ Izen ematea eta bazkarirako erreserbak:

komunikazioa@gurasos.org

■ Beste ekintzak: haurtzaindegiz zerbitzua ekintzekin, askariarekin eta musika.

■ Informazio gehiago: hitzartu.eus
gurasos.org



Aginagako Udako

Txokoetan izena

emateko epea zabalik

Aginagako udako txokoetan izena emateko epeak maiatzaren 2tik 18ra bitarte iraungo du. “Txokoen iraupena, ekainaren 25tik uztailaren 30era izango da eta aurten abuztuan ere eskaintzeko asmoa dugu, taldea sortzen bada behintzat”, Aginagako San Praixku guraso elkarteak aditzera eman duenez. “Apuntatzeko bi aukera izango dira, iraupen osoa edota asteak solte”. Informazio gehiago helbide honetan: aginaga@eskolatxikiak.org

Udako txokoak

Zubietan

2-12 urte artekoentzako udako txokoak antolatu ditu Zubietako Guraso Elkarteak. Interesdunek idatzi dezatela zubietatxoko@gmail.com helbidera edo deitu 649 659 786 telefono zenbakira.

UEMAko udalekuak

■ Noiz: uztailaren 10etik 17ra.

■ Non: Zestoako Sastarrain aterpetxean.

■ Nori zuzendua: 15-18 urte arteko gazteentzat.

■ Izen ematea: maiatzaren 9ra arte.

■ Prezioa: 249 euro.

■ Informazio gehiago: hezkuntza@uema.eus

KzGunea maiatzean

Arratsaldean irekiko dute maiatzean, 16:00-20:00 artean.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37

943023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

“Bortxaketa da. Guk sinesten dugu!”



Apirilaren 26an elkarretaratze jendetsua egin zen Mikel Laboa plazan.

U surbil ere suminduta agertu zen plazara apirilaren 26an, 2016ko San Ferminetan bost gizonen emakume bat erasotu ostean, kasu honi lotuta Nafarroako Auzitegi Nagusiak kaleraturiko epaiaren aurrean.

Bederatzina urteko espetxe zigorra ezarri zitzaizen bost gizon hauei, sexu abusu delitua egotzita. Emakumea bortxatu izana ukatu zuten. Epai hau eman zuen epaileetako bat gainera gizon hauek absolbitzearen alde agertu zen. Fiskaltzak eta akusazio partikularrek, 20-25 urtetik gorako espetxe zigorak eskatuak zituzten.

Epai honen aurrean, “nazka, amorrua, inpotentzia, sinestu ezina, beldurra...” sentitu zuten, Nafarroako auzitegiak

MANIFESTUA

“Hain zaila da ulertzea ezetz ezetz dela?”

Emakumeok libre eta aske bizitzeko eskubidea dugu”

kaleraturiko epaia salatzeko, Usurbilgo Sortuk deituta Mikel Laboa plazan deitu zen elkarretaratze jendetsuan bildutako herritarrek. “Bortxaketa da! Guk sinesten dugu!” aldarriaren bueltan protesta egin zuten herritarrek, 2016ko Sanferminetan jazotakoa sexu abusua ez, argi eta garbi bortxaketa izan zela salatu eta gogorarazi zieten epaileei.

“Guk sinesten zaitugu!”

Mobilizazio amaieran irakurri zen manifestuan galdetzen zu-

tenez, “noren eskuetan dago justizia? Justiziarik bada, behintzat? Ze legek babesten gaituzte? Erasoaren ardura neskaren gain utzi dute, izan ere, emakumeak jarritako erresistentziaren arabera gertatutakoa baitzen bortxaketa deliturako behar den indarkeria hori. Ikuspegi matxista, inondik inora”, salatu zuten.

Emakume izateagatik, emakumeen hitzak eta ekin-tzak sistematikoki susmo-pean jartzen diren honetan, galdetzen zen manifestuan, “hain zaila da ulertzea ezetz ezetz dela? Emakumeok libre eta aske bizitzeko eskubidea dugu”. Eta ozen esanez eta bertaraturikoen txalo artean amaitu zuten ekitaldia, “Guk sinesten zaitugu! Guk sinesten zaituztegu!” aldarrikatuz.

Erraustegiari buruzko eztabaidaren aldeko sinadura bilketa, azken txanpan

Errausketaren Aurkako Mugimenduak joan den udazkenean abiatu zuen sinadura bilketa kanpaina amaitzeaz du. Gogoan izan, erraustegiaren inguruko eztabaida teknikoak ematea eskatzen zaio EITB-ri. Erraustegiaren aldeko eta kontrako iritzia islatuko lituzkeen eztabaida saioa eskaintzea alegia. Horren alde, hilabeteotan change.org atarian abiatutako atxikimendu biletari bukaera ematea erabaki dute. Dagoeneko 9.000 lagunek baino gehiagok bat egin dute, erraustegiaren eraginaren inguruko eztabaida telebista publikoak plazartzeko eskariarekin. Erronka 10.000 atxikimendu biltzera heldzea da.

Elkarretaratzea EITB atarian

Maiatzaren 17an, Birziklatzearen Nazioarteko Egunean hain zuzen, elkarretaratzea deitu dute 18:00etan, Euskal Irrati Telebistak (EITB) Donostiako Miramonen duen egoitza atarian. “Azken aldian erraustegien inguruan argitaratu diren albisteak kezka areagotu besterik ez dute egin gizartean eta ezinbesteko bihurtu da eztabaida teknikoak modu publikoan burutzea, ondoren gizarteak erabaki dezan proiektu polemiko honen egokitasunaz”, nabarmendu dute Errausketaren Aurkako Mugimendutik.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825


Iñaki Zabaleta: “Humboldtten ustez, nazioa erabaki politikoen aurretiko zerbait da”

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi EHUKo Filosofia saileko irakaslea da. *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria* (EHU) izeneko liburua eman berri du argitara. Datorren astean liburu honi buruzko hitzaldia eskainiko du Suteğin. Maiatzaren 9an asteazkena, arratsaldeko 19:00etan udal liburutegian. Elkarrizketa honen bidez, iker-tzaile prusiarrari buruzko argibide ugari eskaini dizkigu.

NOAUA! Hasi, noiz hasi zinen liburu hau idazten?

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Nire doktoretza-tesian oinarritzen da. Alemanian Koloniako Unibertsitatean egin nuen tesia, ia duela 20 urte. Alemanez idatzi nuen eta hasieratik izan nuen lana euskaratzeko asmoa. Baina lan kontuak eta familia kontuak tarteko, gauzak atzeratzen joan ziren. Zatitxo batzuk Jakin aldizkarian aurreratu nituen baina tesia, bere osotasunean, bazter batean geratu zen. Duela sei bat urte hasi nintzen euskaratzen.

N. Liburu honek ez du tesiek izan ohi duten kutsu akademikoa. Euskarara itzultzeko ga-



“Nire doktoretza-tesian oinarritzen da liburu. Koloniako Unibertsitatean egin nuen tesia, ia duela 20 urte”. Usurbilen bizi da Iñaki Zabaleta.

IÑAKI ZABALETA

“Nazioa ‘identitate kolektiboa’ eta antzeko esamoldeekin disimulatzen dugu baina Humboldtten horri nazioa deitzen dio”

raian, egokitu egin al duzu?

Egitura orokorra berdina da baina gauzak esateko modua ezberdina da. Euskal Herrian

irakurtzeko idatzi dut eta egokitu egin dut. Baita eguneratu ere.

N. ‘Azken hitza’ atala da horren lekuko. “Askotan entzuten ditugu gure artean honelako espresioak: Gure esku dago, erabakitze eskubidea, subjektu politikoa eta abar, baina hauek ere bestelako galderak planteatzen dituzte: norena da eskua? nork dauka eskubidea? edota zein da subjektua?”.

Gai potoloetan sartzen ari gara,

kar, kar, kar.

N. Nazio kontzeptuaren bueltan, hausnarketarako hari mutur asko daude liburuan.

Nazio kontuak nahikoa polemikoak dira. Herri honetan eta baita beste herri askotan ere. Nazioa ‘identitate kolektiboa’ esamoldearekin disimulatzen dugu baina Humboldtten horri nazioa deitzen dio. Nik ere kezka pertsonal hori nuen. Nola ulertzen ote dugun nazio kontzeptua. Eta batzuetan ona da urrutira eta beste garai batera begiratzea.

N. Nazioa hizkuntza-komunitate gisa definitzeraz iritsi zen.

Hasieran ez zuen hori hain garbi formulatu. Ikasi egingo duen zerbait izango da seguraski. Baina konklusio moduan, argi ikusiko du nazioa –talde bezala edo identitate kolektibo bezala– erabaki politikoen aurretiko zerbait dela. Ideia hori Herderren planteamenduekin lotu dezakegu. Hark ere gizadiaren historia natural bat nahi zuen. Azken batean politikak ez du nazioa sortzen. Nazioa hor dago.

“Erabakitze eskubidea daukagu nazio bat garelako”

NOAUA! Gaur eta hemen, nazio-estatuaren logika da nagusi.

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Horregatik da interesgarria Humboldt. Frantziako Iraultzaren ondoren indartzen da estatua-nazioaren ideia. Eta Humboldt hor dabil, nazioa aurretiko zerbait dela gogorarazi nahian. Gero ikusiko da zer forma juridikoa eta politikoa emango zaion, nola kudeatuko den hori guztia... Baina nazioa aurretik dagoen zerbait dela dio. Eta politikak ez duela nazioa ordezkatzeko, nolabait esatearren.

Alde horretatik, interesgarria da ikustea garai hartan (XIX. mende hasieran) inor ez zela independentista Euskal Herrian. Inor ez zen nazionalista, gaurko terminoetan. Baina foralista bai. Foralistak baziren. Eta kontestu horretan, atzeritik iritsiko da Humboldt. Ez da frantsesa, ez espainola, eta nolabaiteko normaltasun batekin hitz egingo du nazio terminoaz. Oso adierazgarria iruditzen zait hori. Azken batean, identitate kolektiboa ez da guk orain kapritxoaz erabaki dugun

zerbait. Historikoki jaso dugun zerbait baizik.

N. Azken urteotan gero eta gutxiago erabiltzen da nazio hitza.

Gure esku dago aipatu duzu lehen, edota erabakitze eskubidea. Kontra egon gabe, zerbaiten falta ikusten dut mugimendu horretan. Azken finean, erabakitzeko eskubidean edota printzipio demokratiko hutsetan oinarritzen badugu gure eginkizuna, zer pasako litzateke herrialde batek gauza bat erabakiko balu eta beste herrialde batek beste bat?

Hor dugu Tabarniaren adibidea Katalunian. Hemen Tabarnia pila bat sortuko lirateke. Eta ez bakarrik herrialde mailan. Herri batek gauza bat erabakiko balu eta aldamenekoak kontrakoa? Horrelako erabaki demokratikoek beren garrantzia izanda ere, ezin diote nazioaren kontzeptuari uko egin. Beste modu batean esango nuke nik: guk erabakitze eskubidea daukagu nazio bat garelako. Edo gutxienez, zentzu normal batean, gure burua nazio bezala identifikatu dezakegulako.

“Hizkuntzan aurkitu zuen talde identitarioaren oinarria”

NOAUA! Hizkuntza ere, gakoa da. Humboldték hizkuntza-komunitatearekin identifikatzen zuen nazio kontzeptua.

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Prusiarra zen Humboldt. Alemania ez zegoen bateratuta oraindik. Eta garai hartan, Frantzia potentzia militar-politiko-ekonomiko handitzat daukate. Humboldték, nazio taldearen identitatearen oinarria ezagutu nahian, Parisera joko du. Hasiera batean literatura eta horrelako kontuak aztertzen hasiko da. Baina badu susmo bat. Euskal Herrira etortzerakoan euskara deskubrituko du eta oso erakargarria egingo zaio. Eta bereziki erakargarri, euskara ez dagoelako liburuetan jasoa. “Herriaren ahoan dago hizkuntza”, bere hitzetan esanda. Hizkuntzan aurkituko du talde identitarioaren oinarria. Idatzita egon edo ez, hizkuntzak egituratzen du talde bat talde bezala. Hortik bideratuko du hizkuntzaren teoria bat. Eta hortik iritsiko da nazioa hizkuntza-komunitatearekin identifikatzera. Nazioa ez da bakarrik hizkuntza. Baina hori gabe ezin da nazioaz hitz egin.

N. Gaurko begiekin ikusita, bixia suertatzen da. Pentsa, euskaraz ez dakitenek euskalduntzat dute euren burua.

Gai polemikoa da. Batzuetan sentsazioa daukat euskaldunoi eskatzen zaigula gauza espezial bat. Eta inori ez zaio burutik pasatzen espainiar izatea eta gazteleraz ez jakitea. Eta hemen alderantziz da.

N. Euskaraz ez jakin arren, euskaldun sentitzea normalizat hartzen da hemen.

Hori da. Egoera zaila da, ordea. Ezin da gaurtik biharrera konpondu...

N. Baina ez genuke espezialak izan behar.

Begira, Humboldtentzat hiz-



Wilhelm von Humboldtentzat, “nazioa ez da bakarrik hizkuntza. Baina hori gabe ezin da nazioaz hitz egin”.

IÑAKI ZABALETA

“Euskal Herrira etortzerakoan euskara deskubrituko du eta oso erakargarria egingo zaio. Eta bereziki erakargarri, euskara ez dagoelako liburuetan jasoa. ‘Herriaren ahoan dago hizkuntza’, bere hitzetan esanda”

kuntza ez da etiketa bat. Hizkuntzak egituratu egiten du pertsona eta hizkuntzak egituratzen du taldea.

N. Euskarak Nafarroan pairatzen ari denaz adibidez, zer esango luke?

Kasualitatez, oso gutxi egon zen Nafarroan. Parisen zela, Lapurdiko Dominique-Joseph Garat ezagutu zuen. Iraultzaren ondoren ministro izandakoa. Garatek proiektu bat izan zuen

zazpi euskal probintziak batu eta Napoleonen pean biltzeko. Humboldt Garaten bitartez sortu zitzaion euskararekiko interesa. Goethe eta Schillerri idatzi zien esanez zein interesgarria zen hizkuntza berezi hura. Beste hizkuntza guztietan gauzak aurrean dauden bezala, euskararen atzean datozela. Hizkuntzaren deklinabidea eta egitura txundigarriak egiten zitzaizkion. Eta hori dena zioen hona etorri aurretik.

Politikaria eta betiko dilema

NOAUA! Euskararekin lotu izan dugu Humboldt baina bere ekarpena askoz oparagoa izan zen, ezta?

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Hala da. Humanismoaren alorrean adibidez, hezkuntzan, formazioan, gizakiaren garapenean... Esparru horietan ekarpen handia egin zuen. Bere tradizio akademikoaren kontra seguruenik, aniztasuna eta diferentzia baloratuko ditu. Diferentzia benetako balio gisa biziko du.

Politikari lotuta badu hausnarketa interesgarri bat: “politikariak bere burua aurkitzen du beti dilema baten aurrean. Aukeratu egin behar du: ezberdintasunak ezabatu eraginkortasunaren izenean edo ezberdintasunak garatu eta horien onurak aprobetxatu. Eta zoritxarrez politikariak gehienetan lehenengoa aukeratzen du”. Definizio horrek balio zuen duela 200 urte eta balioko du baita hemendik 200 urtera ere.




Liburua Sutegin aurkeztuko du. Maiatzaren 9an asteazkena, 19:00etatik aurrera, liburutegian.

“Benetako antropologia batek ezin du bakarrik atzera begiratu. Aurrera ere begiratu behar du”

NOAUA! Antropologia da bere diziplina. Antropologia humanistiko bat. Helburua ez da soilik gizakia ezagutzea baizik eta beroni gizatiarrago izaten laguntzea, maila indibidualean zein kolektiboan.

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Pertsona bat ezagutzea ez da fenomeno meteorologiko bat ezagutzea. Pertsona bat ezagutzen duzu baita bere proiektzioan ere. Bere borondatearekin, bere intentzioarekin, bere helburuekin... Benetako antropologia batek ezin du bakarrik atzera begiratu. Benetako antropologia batek aurrera begiratu behar du. Proiektatu behar du, ideiak eman behar ditu eta konbinazio hori da berak landu nahi duena. Eta bide horretan, garrantzia handia emango dio konparazioari. Eredu eta irizpide unibertsalak ez daude. Ezagutzeko eta ideia berriak lortzeko modua da konparatzea.

N. Humboldt, hain zuzen, horrela deskubritu zuen gure hizkuntza. Liburuan ulertu du-



Wilhem von Humboldt eta Euskal Herria liburuaz luze zabal arituko da Sutegin. Maiatzaren 9an asteazkena, arratsaldeko 19:00etan.

IÑAKI ZABALETA

“Euskal Herrian egon ondoren, antropologia hizkuntzaren eremura bideratu zuen Humboldt”

gunez, euskara deskubritzea gakoa izan zen bere ibilbide intelektualean.

Hori ez da soilik euskaldunok

diogun zerbait. Ikertzaile denek esaten dute. Euskal Herrian egon ondoren, antropologia hizkuntzaren eremura bideratu du. Antropologia egiteko modua da hizkuntza ikertzea.

N. Linguistikoki garatuko du antropologia.

Baina ez bakarrik teknikoki. Jakintza linguistikoa suposatzen duen guztia hartuko du

kontuan. Hizkuntzaren erabilerak, hizkuntzaren filosofia... Hizkuntzaren izaera soziala, azken batean.

“Berezko balioa du batek bere ama-hizkuntzan edo bera bizi deneko herriaren hizkuntzan idazteak”. Humboldt hitzak dira horiek. Zuk ere, horregatik plazaratu duzu orain tesia euskaraz?

Hori esan zueneko kontestua hartu behar da kontuan. Humboldt hori esan zuenean ez zen hain normala alemanez idaztea. Guri oso normala iruditzen zaigu baina ordura arte ez zen hain normala. Humboldt alemanez idatzi zuen gehien bat. Baina ez zen hain ohikoa, eta are gutxiago bere aurreko belaunaldikoen kasuan. Ordura arte latinez edo frantsesez idazten zuten. Berak susmoa du hobe dela ikerketak frantsesez idaztea. Baina Humboldt tentat, hizkuntzaren garrantzia ez da soilik erretorikoa eta bere buruari esango dio: “aizu, nire hizkuntzan idazteak ere badu bere balioa”.

Humboldt: “Horrela galdu du zorigabeko herri honek izena”

NOAUA! Humboldt bitan izan zen Euskal Herrian.

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi: Lehen bidaian egun gutxi egin zituen hemen. Baina bidaia horren ondoren, Prusiara itzuli eta erabakiko du hizkuntza kontuetara dedikatuko dela guztiz. Eta erabaki horretan, euskara tartean dago. Zalan-tzarik gabe.

N. Bigarren ez etorri zen eta egonaldi hura luzeagoa izan zen.

Probintzia denak bisitatzeko asmoa zuen. Baina kontak-tuen bitartez gidatu zen. Bai-onan egun batzuk pasa zituen.

Gasteizen egon zen gero. Eta ondoren, Durangon eta Bilbon. Oso garbi zuen Euskal Herria muga politikoen gainetik aztertu nahi zuela. Bilbotik bueltan zetorrela haxe utzi zuen idatzia: “ez dut bidaia presaka bukatu nahi eta Iparraldean ere egon nahi dut”. Oso modu argian esan zuen.

Nafarroan ez zen asko ibili. Orreagan izan zen bisita baina berriz ere Iparraldera itzuli zen. Humboldt tentat, herriaren eta nazioaren ideia politikaren aurretiko zerbait da. Vasque v-rekin idazten zuen. Alemanez b-rekin idaz-

ten da basque. Espainiarrek euskaldunez hitz egiterakoan vizcainos edo provincias vascogadas definizioak erabiltzen dituztela dio, baina soilik Hegoaldekoak kontuan harturik. Eta frantsesek euskaldunei buruz idazten dutenean, b eta q-rekin idazten dutela basque. Baina Iparraldekoak bakarrik gogoan edukita. Honen aurrean, Humboldt hausnarketa hau egingo du: “Horrela galdu du zorigabeko herri honek izena”. Humboldt oso-tasun baten parte kontsideratu nahi zituen den-denak, historia politiko konkretutik aparte.



Wilhem von Humboldt (1767-1835).

Kontzeptualki nazioa zer den ulertzeko balio digu honek.

Joxan Artze omendu dute Donostian

Urte hasieran zendutako sortzaile usurbildarra omendu zuten apirilaren 24an Donostiako San Telmo Museoa. Hainbat senide, lagun eta erakundeetako ordezkari bertaratu ziren hitzordura. Txalaparta, poesia, musika, dantza uztartu zituen museoak berak eta Donostiako Udalak antolaturiko ikuskizunak. Emanaldiko bideoa santelmomuseoa.eus atarian duzue ikusgai.

Artzeren unibertsoa, San Telmon ikusgai

2016ko ekainean Potxoenean izan genuen "Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa" erakusketa maiatzaren 20ra arte bisitatu ahalko duzue Donostiako San Telmo museoko Laborategian. Ordutegi honetan: 10:00-20:00 artean, asteartetik igandera.

Erakusketan, irudi, musika eta soinu mundu baten bidez, Artzeren 40 urte baino gehiagoan zehar garatutako lan poetikoan murgildu ahalko gara. Sarrera doakoa izango da.

Informazio gehiago:
santelmomuseoa.eus



Txalaparta, poesia, musika eta dantza uztartu zituen San Telmo museoak eta Donostiako Udalak antolaturiko ikuskizunak. Senideak, lagunak eta erakundeetako ordezkariak bertaratu ziren ekitaldira.

Usurbilgo omenaldia, ekainean

Joxan Artzeren sorterria, Usurbil, sortzaile handia merezi moduan omentzeko prestatzen hasia da. Gogoan izan, zeregi-notarako herritarren batzorde bat osatu zen martxoan. Antolaketa lanei ekin zieten. Dagoeneko omenaldi eguna finkatua dago; ekainaren 16an omenduko du

Usurbilek Joxan Artze. Egun osorako egitaraua josten dabilta. Poesia, txalaparta, eta musika izango ditu osagai nagusi. Abian duten lanketari maiatzaren 14an 18:30ean Potxoenean deitu duten bilerara irekian emango diote segida. Edonor bertaratu eta parte har dezake antolaketa lanetan.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Maiatzak 18

OSTIRALA

17:30 URNIETA

Egape ikastolako jolastoki estalia

7€

AIURRI 

Sarrerak salgai:

ANDOAIN

- Ernaitza liburu-denda. Zumea kalea.

LASARTE-ORIA

- Ttakun kultur elkarte.

HERNANI

- Leokadisti. Urbieta kalea, 6.

URNIETA

- Bikain okindegia. San Juan plaza.
- Xauxar Taberna. Idiazabal kalea.

Zumarteko Mintzaira Taldekoak, Musikenen

Zumarteko Musika Mintzairako ikasleak Donostiako Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian izan ziren aurreko astean.

“Tema e variazioni” izen-buruean egin zen kontzertu didaktikoan hartu zuten parte. Zumarte Musika Eskolako ki-deek aditzera eman digutenez, “hari laukote bat, haize boskote bat, pianojole bat, perkusio zein dantza talde bat eta euskarazko hizlari bat aritu ziren bertan”.



Argazkian diren ikasle zein irakasleek Goi Mailako Musika Ikastegian izan ziren kontzertu didaktiko bat ikusten.

Musika taldeak, Villabonako Guria Antzokian



Apirilaren 19an, Zumarte Musika Eskolako talde batzuk Villabonako Guria Antzokian jo zuten. Kontzertu hau XIV. Soinurbil Musika Astearen barruan egin zuten “trukaketa kontzertuaren bigarren zatia izan zen”, Zumartetik aditzera eman digutenez. Villabonako emanaldian trikitilari-panderojole taldea, gitarra taldea, akordeoilariak eta banda aritu ziren. “Villabonako Loatzo Musika Eskolako taldeekin batera kontzertu polita eskaini zuten”.

Akordeoilariak, Tarragonako jaialdi batean



Apirilaren 21ean larunbata, Lau Haizeta Akordeoi Orkestrako kide diren Zumarte Musika Eskolako akordeoilariak Tarragonako Ametlla de Mar herrian izan ziren. XVI. Acordionada izeneko jaialdi ospetsuan hartu zuten parte. Eguerdiko 12:00tan lehen saioa eskaini ondoren, Lau Haizeta Akordeoi Orkestrako kideak bigarren kontzertu batean aritu ziren arratsalde partean. Acordionada jaialdian batu ziren beste talde batzuekin batera jo zuten.

‘Errementari’, euskal ipuin tradizional batean oinarritzen den filma

Joxe Migel Barandiaranek Patxi Errementaria euskal ipuina bildu zuen eta haren gainean osatu du filma Paul Urkijo zuzendariak. Ostiral honetan, Sutegin ikus ahal izango dugu.

Hamar urte pasatu dira 1833ko Lehen Karlistaditik. Arabako herrixka batean, Diputazioko komisario bat gertakari bat ikertzen ari da, eta arrastoek basoaren sakonean dagoen errementeri beldurgarri batera daramate. Bertan, errementari arriskutsu eta bakarti bat bizi da: Patxi. Inguruko herritarrek hari buruzko istorio ilunak kontatzen dituzte, lapurreta, hilketa eta demonioekin egindako tratuei buruzkoak. Halako batean, Uxue izeneko neska umezurtz batek Patxi



‘Errementari’ Sitgesko jaialdian estreinatu zen eta harrera ona izan zuen. Paul Urkijoren pelikulak ikusleen saria eskuratu zuen Beldurrezko Astean.

errementeriaren etxean sartzea lortuko du, eta zer misterio ezkutatzen duen aurkituko du.

Istoriari aurpegia eta ahotsa jartzen dioten aktore nagusiak Kandido Uranga, Uma Bracaglia, Eneko Sagardoy, Ramon Agirre eta Itziar Ituño dira.

‘Errementari’ filma

Maiatzak 4, ostirala

■ 20:00 “Errementari” Sutegin.

■ Iraupena: 96 minutu.

■ Sarrerak: 5 euro Lizardin aldeztu aurretik eta egun berean leihatilan.

Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

“Ez Dok Hiru, euskal musikaren benetako istorioa”

Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak maiz izan dira Sutegiko oholtzan. Honakoan, hiru musikarirekin batera arituko dira. Larunbat honetan, euskal kantutegian oinarritutako ikuskizun barregarria eskainiko dute.

“Zenbat euskal kanta eza gutzen dituzu? Kalkulua egin duzu inoiz? Ziur gaude uste duzuna baino askoz gehiago direla. Ikuskizun honetan berrehun baino gehiago agertzen dira (zatiak, noski!) eta denak ez bada gehienak, ezagun egingo zaizkizu”. Sinopsian topatu ditugu hitzok. Aurreko astean Patxo Telleria aktorea elkarriketatu genuen eta honela azaldu zuen Ez Dok Hiru ikuskizun berriaren helburua: “gure musikari eginiko ome-



Larunbat honetan Sutegin arituko dira hiru musikarirekin batera.

naldia da hau. Hori argi dago hasieratik bukaeraraino, baina katxondeotik abiatu gara”.

Iaz hasi ziren ikuskizun berri hau eskaintzen eta geroztik hona 60 bat emanaldi egin dituzte. Euskarazko zirkuituan guztiz aparta den datua.

‘Ez Dok Hiru’ antzezlan

Maiatzak 5, larunbata

■ 20:00 “Ez dok hiru” antzezlan Sutegiko auditoriumean.

■ Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztu aurretik, 10 euro egun berean (leihatilan).

Antolatzailea: Jexux Artze K. E.

Orbeldi Dantza

Taldea: “Eskerrik asko denoi”

Ohar baten bidez, euren esker ona agertu nahi dute Orbeldi Dantza Taldeko partaideek: “Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Dantza Eguna antolatzen ibili ziren partaide guztiei, Usurbilgo Udalarari eta Hurbilago tabernari zein merkatarien elkarteari. Eskerrak baita ere NOAA!ri egunaren promozioa eta zuzeneko jarraipena egiteagatik. Eskerrik asko gaueko ikuskizunean parte hartu zuten aktore eta musikariei. Ibai Arrietari ere eskerrak argazkiak egiten ibiltzeagatik. Eta azkenik eskerrak dantzari (bertako zein kanpoko) eta herritar orori apirilaren 21eko egun paregabe hura izan zen bezalakoa egiteagatik. Eskerrik asko denoi”.

Maiatzean,

ekitaldiak Bihurri Ludotekan

■ Maiatzaren 18an ostirala, Olatz Korta eta Xabi Zubeldiaren musika emanaldia Bihurri ludotekan. 17:30ean.

■ Maiatzaren 30ean astelehena, gurasoei zuzenduriko hitzaldia: “Identitatearen ibilbidea. Neska-mutil antzizak, sexualitateak, transexualitatea”. 17:00etan, Bihurri ludotekan.

Elikadurari

buruzko hitzaldia Zubietan

Eduarne Gantxegik (ELIKA) elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia eskainiko du Zubietako Kaxkapen.

■ Maiatzaren 14an astelehena, 15:00ean.

■ Zubietako Kaxkapen.

■ Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.



aginaga

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarri (geotermia) baliatzen
da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi
duenarentzat **leku ezinhobe**a.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *





ORIANTE
Institutua

**2018-2019
IKASTURTEA**

**Onarpena
Batxilergoa**

ESKAERAK

On-line
2018ko maiatzaren
2tik 13ra arte

Ikastetxean
2018ko maiatzaren
2tik 14ra arte

✓ Zientziak eta
Teknologia

✓ Giza eta
Gizarte Zientziak

 **Publikoa**

info@oriarte.eus | Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA Tel.: 943372852 / 943372277

www.oriarte.eus

Gure Esku Dagoren giza kateko 9 kilometro igaroko dira Usurbildik

Zehaztu du Gure Esku Dagok, Euskal Herrian inoiz deitu den mobilizazio jendetsuenerako, ekainaren 10eko giza katearen ibilbidea. Gogoan izan, Donostia, Bilbo, Gasteiz, eta hiru hiruburuon arteko 38 herri lotuko dituen 201,9 kilometroko ekimenerako 100.000 lagun beharko direla gutxienez; haietatik 1.000 usurbildar. 2014ko giza katearekin alderatuta, oraingoa bai, inguruotatik igaroko da.

Usurbildik Oriora arteko mugaraino, 9 kilometroko giza kate zatia osatuko da udalerrri honetan. Eremu honetatik gutxi gora behera, 2 kilometro eta erdi inguru, usurbildar eta aginagarren laguntzaz osatuko da. Gainerako ibilbidearen zatia, Buruntzaldeko gainerako udalerrietako herritarrekin; Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako bizilagunekin. Honela banatua egongo da, Usurbilgo udalerrian barrena Gure Esku Dagok deitutako erabakitze eskubi-dearen aldeko ekimenak egin-go duen ibilbidea:

Usurbil

- 09. kilometroa: Lasarte-Oria.
- 10. kilometroa: Lasarte-Oria.
- 11. kilometroa: Zubietta-Usurbil.
- 12. kilometroa: Usurbil.
- 13. kilometroa: Andoain.
- 14. kilometroa: Andoain.
- 15. kilometroa: Urnietta-Aginaga.
- 16. kilometroa: Astigarraga.
- 17. kilometroa: Hernani.

Orio

- 18. kilometroa: Hernani....

300 izen emate

Ibilbidearekin batera, milaka herritarrek elkarri eskua emango dioten ordua ere zehaztua



Ekainaren 10eko giza kateko jende asko animatu da baina jende gehiago beharko da.

GURE ESKU DAGO

"Usurbil eta Orio artean, bi kilometro eta erdi inguru, usurbildar eta aginagarren laguntzaz osatuko da"

dago; ekainaren 10ean, eguerdiko 12:00etan izango da giza katea. Baina lehenago, 10:00-11:30 artean bideratuko da

muntaketa lan guztia. Gero, 12:30etan egingo da ekitaldi nagusia eta 13:30etan hasita, jai giroko hitzorduak hiriburuetan.

Helburua: 1.000 lagun

Pixkanaka gorantz doa, ekainaren 10eko giza kateko atxikimendu kopurua. Usurbilgo Gure Esku Dago talde-tik sare sozialen bidez berri eman dutenez, ia 400 herritarrek eman dute ekimen ho-

netarako izena. Gogoan izan halere gutxienez 1.000 lagun behar direla. Gure Esku Dagok astebururo (ostiral arratsaldeetan eta larunbat nahiz igande eguerdietan) frontoi inguruan jarri ohi duten postuan eman dezakezue izena.

Gogoan izan bestalde, antolaketa lanetan parte hartu nahi duenak, ostegunero biltzen dela Gure Esku Dagoko herri batzordea 19:00etan Potxoenean.

1968an jaiotakoen bazkaria



Giro ederrean ospatu zuten 1968an jaiotako usurbildarrek, apirilaren 21ean Atxega Jauregian egindako bazkaria.

Ikastolaren mende erdiko soinu banda eskuragarri

Kalean da! Udarregi Ikastolak plazaratu du betetzear dituen 50. urtemugako soinu banda, "Udarregi Ikastolak 50" CD-a. Martxoan zehar, ikastolako egungo kide eta kide ohien elkarlanez eginiko grabazioen emaitza da lan hau.

12 kantuz osaturiko diskoa 6 eurotan eskura dezakezue, Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolan. "Usurbildik kanpo, beste herri batzuetan ere salgai jarri dituzte, adibidez, Andoainen Aita Larra-mendi ikastolan, Orion Herri ikastolan, Villabonan Zubimusu ikastolan, Zarautzen Sal-batore Mitxelena ikastolan eta Donostian Axular Lizeoan", berri eman dute Udarregi Ikastolatik.

Eginiko lanketa ahalik eta gehien hedatu nahi dute, "ikastolakook hala merezi duela uste baitugu, lan bikaina eginga baitago, adin guztietako pertsonen hartu dute parte kantu hauetan eta naturaltasuna, elkartasuna,



Diskoa maiatzaren 18an aurkeztuko dute frontoian.

MODU MERKEAN

"12 kantuz osaturiko diskoa 6 eurotan eskura dezakezue, Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolan"

gozotasuna, gogoia eta maitasuna nabariak dira disko honetan, gure izaera eta euskal kutsua lehengaia izanik". Diskoa maiatzaren 18an aurkeztuko dute 19:00etan frontoian.

Udarregi baserrira txangoa

Disko aurkezpenaren aurretik, ikastolaren 50. urtemugari lotutako beste hitzordu bat antolatu da astebete barrurako; ibilaldia maiatzaren 12an, Udarregi baserriraino. Goizeko 10:00etan finkatu dute abiatzeko hitzordua. "Ibilaldian zehar hainbat geldiune egingo dira herriko ondarean erreparatuz eta pasadizoak azalduz. Bidean zehar trikitilariak lagunduta joango gara Udarregi baserriraino eta bertan mokadua bat egongo da".

Udajolaseko izen ematea maiatzaren 3an itxiko da

Ostegun honetan, maiatzaren 3an itxiko dugu izen ematea NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak uztailerako antolaturiko Udajolasen.



Ate irekien egunak Lanbide Eskolan

2018-19 ikasturterako aurrerematrikulazio epea laster zabalduko dute Lanbide Eskolan. Ohi bezala, lehena-go, hezkuntza zentroa, instalakuntzak eta proiektua ezagutzeko ate irekien hiru jardunaldi egun antolatu dituzte asteotarako Usurbilgo Lanbide Eskolan bertan (Etarte bidea 9, Zubieta):

- Maiatzaren 12an eta 19an (larunbatak), 11:00etan.
- Maiatzaren 16an (asteazkena), 18:00etan.

Informazio gehiago:

lhusurbil.eus
943 364 600
eskola@lhusurbil.eus

Sari banaketak etenik ez

Oparo datorkigu udaberria ere NOAUA!ko bazkideentzat. Etenik gabe opariak banatzen segitzen dugu urtez urte proiektu hau bizirik eta aurrera begira sostengua ematen jarraitzen duzuen bazkideon artean. Zuen ahalegina eskertzeko eta herriko sagardotegiekin elkarlanean, bazkari nahiz afariak zozketatzen aritu gara txotx denboraldi honetan. Aginaga Sagardote-

gian bi lagunentzako otordua Roman Manterolari egokitu zaio. Zorionak! Adi, asteburu honi begira Jexux Artze K.E.-k antolaturiko ekitaldietarako sarrierak ere zozketatuko ditugu eta bazkideon artean. NOAUA! kide izan ez eta halako opariak irabazi nahi badituzu, ez utzi biharko. Etorri NOAUA!ren egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu bazkidetza.



Azken zozketan, Roman Manterola bazkidea izan da saritua. Bi lagunentzako otordua egokitu zaio.

LAB sindikatuko irakaskuntza arloaren urtemuga

30 urte bete ditu eta urtemuga ekitaldiak Usurbilen ospatuko dituzte maiatzaren 12an. Sindikatuak eremu horretan eginiko ibilbidearen eta aurrera begirako erronken inguruko ekitaldi batekin abiatuko dute eguna Udarregi Ikastolan. Gero bazkaria eta Mikel Kartton kantautorearekin emanaldia iragarri dituzte plazan.

Lar Zaldiak, Espainiako Txapelketan

NOAUA!ri berri eman dionez, Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Lar Zaldiak Usurbilgo klub hipikoak apirilaren 21ean. "RAID izeneko distantzia luze-ko karreretan jokatzen dute. Apirilaren 21ean Bartzelonan Espainiako Txapelketan hamargarren postua lortu zuten, CEI*** 160 km-ko kategorian. Euskal Herritik 2 parte hartzaile bakarrik joan ziren, baina bizkaitarrak ez zuen lortu 160 km-ak bukatzea. Silvia Simon Carrasco usurbildarrak eta bere zaldiak Gorri75% EUSKADI' ordezkatu zuten Espainiako Txapelketan".



Bartzelonan jokatu zen lasterketan, hamargarren postua lortu zuten.

Andatzakoekin batera Herri Urratsera joateko izena eman behar da aurretik

Bi eguneko irteera (maiatzak 12-13):

- 8:30ean abiatuko dira autobusez Oiardo Kiroldegitik.
- Ibilbidea: maiatzaren 12an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu), maiatzaren 13an Lesaka-Senpere (5,5 ordu).
- Aterpea: Lesakako Matxinbeltzenezan dutxa, loa eta gosaria. Afaria aparte ordainduko da. Aterperako toaila norberak eraman beharko du.
- Prezioa: 30 euro.

Egun bateko irteera (maiatzak 13):

- Ibilbidea: Lizuniaga-Senpere

(3,5 ordu).

- Abiatzeko hitzordua: 8:30ean autobusez Oiardo Kiroldegitik Lizuniagaraino (nahi duena Senpereko Herri Urrats jaialdiraino autobusez joan daiteke. Kasu honetan, ez da zertan federatua egonik).
- Prezioa: 10 euro.
- Izen ematea: ordainketak maiatzaren 9a baino lehen egin, bi kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321. Kutxabank: 20955069071068489805.

Oharrak:

- Plaza kopuru mugatua.
- Bi eguneko irteerako parte

hartzaileen kasuan, 2 egunerako ibilbiderako otordua, toaila eta aldatzeko arropa eraman beharko da.

-Maiatzaren 13an Lizuniagan elkartuko dira autobusez datozenekin, Senpereko Herri Urrats jaialdira joateko. Senperetik itzultzeko autobusa, 18:30ean.

-Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

Informazio gehiago:

andatzamendizale.info

Kadete mutilen eskubaloit taldea, hirugarren

Asteburuan Zarautzen jokatu duten Euskadiko Txapelketan hirugarren postuan sailkatu da Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen eskubaloit taldea, Irun eta Zarauzko taldeen atzetik. Espainiako sektorea jokatzeke erronka dute orain eskuartearen.

Euskadiko Txapelketa

Emaitzak:

Apirilak 27:
Zaisa Bidasoa Irun 30
Usurbil K.E. 29

Apirilak 28:
Urduliz Askartza 31
Usurbil K.E. 31

Apirilak 29:
Usurbil K.E. 31-
Gran Camping Zarautz ZKE 35

Sailkapena:

- 1-Zaisa Bidasoa Irun 6
- 2-Gran Camping Zarautz ZKE 4
- 3-Usurbil K.E. 1
- 4-Urduliz-Askartza 1

Igeriketa saioak itsasoan egiteko aukera

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak itsasoko entrenamendu saioak egingo ditu udan. Ekainaren 11tik uztailaren 20ra, Donostiako Badian. Izen-ematea zabalik da. Informazio gehiago info@buruntzaldeaikt.eus helbidean.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA

Salgai

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

Etxea salgai Atxegalden. 4 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Dena berritzeko. 659 921 235

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komun, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalearren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komun, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komun, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska

bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje ibxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriando 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa

aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaindiko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel. 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93



Zorionak Markel!

Maiatzaren 2an 8 urte bete dituzu. Ondo pasako zenuela espero dugu, eta disfrutatut izana. Muxu asko familiaren partez.

OHARRA: 2018ko maiatzaren 11n aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorian-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 7an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 66111892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zaindiko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko in-

terna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 634 278 198

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituladuna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehene ostiralarira. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen,

garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo

sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitagia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 03	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 04	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 05	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 06	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 07	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 08	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 09	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Maiatzak 03 - Maiatzak 13

Osteguna 10	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 11	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loliola 9. Lasarte
Larunbata 12	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30		
GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00		
Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.		

Agenda maiatza

04 ostirala

■ **Zinea Sutegin: Errementari.** 20:00etan Sutegiko auditorioan. Iraupena: 96 minutu. Sarrerak: 5 euro. Lizardin aldeztu aurretik eta egun berean leihatlan.

05 larunbata

■ **Antzerkia Sutegin: "Ez Dok Hiru".** 20:00etan auditorioan. Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztu aurretik, 10 euro egun berean (leihatlan).

■ **"Siria odoletan" hitzaldia** Potxoenean, 19:00etan.

06 igandea

■ **Andatza Eguna.** Goizean zehar, musika eta hamaiketako. 14:00etan bazkaria (norberak berea eramanda).

Igandean, Andatza Eguna



Andatzakoek hamaitakoa banatuko dute goizean zehar.

Goizean zehar, musika girotua, txotxeko sagardoa Saizarren eskutik eta hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

■ 14:00 Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

■ Babeslea: Usurbilgo Udala.

"Siria odoletan" hitzaldi eta mahai ingurua

"Siriako herria 7 urteko gerra gordinen murgildua dago. Hemendik urrun geratzen zaigun gatazka honetan, ISIS erakunde terroristaren aurkako lehen guda frontea bilakatu da. Munduko indar militar boteretsuenak ere bertan dira bata bestearen aurrean.

Kurduak ere beren lurraren defentsan

ari dira terroristen kontra. Hori guztia salatu eta argia jarri asmoz" antolatuko du Usurbilgo Sortuk mahai-ingurua maiatzaren 5erako 19:00etan Potxoenean. Askapenako kide Aratz Estonbak eta Siriaren Aldeko kide Aritz Saidik parte hartuko dute "Siria odoletan" izeneko saio honetan.

Datozenak

Irteera, Udarregi baserrira

Ikastolaren 50. urtemugako ospakizunen baitan, txangoa antolatu da Udarregi baserriraino. "Ibilaldian zehar hainbat geldialdi egingo dira herriko ondarean erreparatuz eta pasadizoak azalduz. Bidean zehar trikitilariak lagunduta joango gara Udarregi baserriraino eta bertan mokadu bat egongo da".

■ Maiatzak 12 larunbata, 10:00etan.

■ Tokia: Paris etxetik abiatuta.

Maiatzaren 13an,

Baserritarren Eguna

■ 10:15 46. Pilota txapelketa frontoian.

■ 11:00 Baserriko produktuen azoka Dema plazan.

■ 11:30 Baserritarren omenezko hamaiketako.

■ 13:00 Buruhandi eta Erraldioen konpartsa.

■ 14:00 Herri Bazkaria bertsolariekin frontoian. Txartelak salgai Alkartasuna, Artzabal eta Bordatxon. Hel-duak: 20 euro. Haurrak: 10 euro.

■ 16:00 Xebastian Lizaso eta Ane Labaka bertsolariak.

■ 18:00 Herri Kirolak.

■ Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.

■ Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

GERTU



MAIATZEAN...
10 euroko erosketa baleen
zozketa!



hurbilag 

Hurbilaga Internet eta Komunikazioak



Hurbilaga Urtaria



Euzko Jaurlaritzaren Gorteko Bako

Usurbil gozatu!

Ugartondo



Zatoz
ingurune
paregabe hau
ezagutzera!

2 logela
219.000 €

-tik aurrera*

3 logela
260.000 €

-tik aurrera*

Garajea eta trastelekua barne



jaureguizar

943 579 366

619 508 392

Kale Nagusia, 10 · Usurbil

www.jaureg.com

* BEZ-a ez dago barne.